

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN  
AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

**Bilera-mota:** ohikoa.

**Eguna:** 2005-02-24

**Ordua:** 18:00 – 20:45

**Tokia:** Legazpiko Udaleko Udalbatza Aretoa

**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.

**Día:** 24-02-2005

**Hora:** 18:00 – 20:45

**Lugar:** Salón Plenos Ayuntamiento Legazpi

**Bertaratuak/ Asistentes:**

Juan Ramón Larrañaga (Alkatea), Bixente Garmendia (Ingurumeneko zinegotzia/ Concejal Medio Ambiente), Jose Luis Zabaleta (Industria eta Hezkuntzako zinegotzia/ Concejal Industria y Educación), Maribel Ugarte (Concejal), Alonso Francés (Aparejadorea), José Ignacio Gil (Ur Kontsortzioa), Joxan Auzmendi (CEIDA), Tere Madinabeitia (Diario Vasco), Nieves Guillen (Domingo Agirre ikastetxea), Eva Lasa (Haztegi Ikastola), Loren Andueza (Haztegi Ikastola), Esther Ferrero (GSB Acero, SA), Javier Iraeta (GKN Driveline Legazpi SA), María Martínez (GKN Driveline Legazpi SA), Paxi Zabaleta (IRATZARRI), Inés Corral (IRATZARRI), Belen Madinabeitia (Brinkolako auzo elkarte), Josune Macaya (UGGASA), Juanmi Urrutia (herritarra/ vecino), Juncal Fernández (herritarra/ vecina), Nerea Tauschke (herritarra/ vecina), Iñigo Galo (herritarra/ vecino), Carlos Alonso (Ingurune), Arkaitz San José (Ingurune), Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria).

**Aztergaiak:**

1. 2004an egindako ekintzak.
2. 2005-2007 eperako Ekintza Planaren zirriborroa.
3. Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1.- 2004an egindako ekintzak.**

lazko planari buruz ez da komentariarik egin.

**2.- 2005-2007 eperako Ekintza Planaren zirriborroa.**

Inguruneko Carlos Alonsok planaren zirriborroaren azalpena egin du, Gizarte eta Ekonomia arloak integratu direla azpimarratuz. Gai hauek udal teknikariek aztertu direla azaldu du.

Hamar minutu utzi zaizkie bertaratuak aurretik bidalitako fitxa betetzeko. Ondoren, fitxak jaso eta arloz arlo aztertu dira proposamenak:

**Orden del Día:**

1. Acciones realizadas en 2004.
2. Borrador del Plan de Acción para el periodo 2005-2007.
3. Ruegos y preguntas.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1.- Acciones realizadas en 2004.**

No se ha realizado ningún comentario con respecto al plan del pasado año.

**2.- Borrador del Plan de Acción para el periodo 2005-2007.**

Carlos Alonso de Ingurune presenta el borrador del plan, señalando que se han integrado las áreas Social y Económica. Comenta que esos temas se han analizado con los técnicos municipales.

Se dejan diez minutos a las personas asistentes para cumplimentar la ficha enviada. A continuación, se recogen las fichas y se analizan las propuestas, por líneas estratégicas:

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN  
AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

- 1go arlo estrategikoa: Eskualdeko eta Legazpiko balore turistikoak zabaltzea, eskoletako ordutegiak gurasoen beharretara egokitzea, herriko enprekin kontaktua mantentzea, merkataritza sustatzeko ekintzak bultzatzea, dibertsifikazio ekonomikoa, herritarrengan kontsumo iraunkorra bultzatzea.
  - 2. arlo estrategikoa: Familia-terapia, pertsona helduak zaintzen dituzten senideentzako laguntza programa, etorkinen integrazioa, etxez etxeko laguntza zerbitzurako irizpideak.
  - 3. arlo estrategikoa: Kirol instalakuntzak, asteburu gauetan gazteentzako ekintzak antolatzea (gai honetaz eztabaida sortu da), balore-heziketa, euskera bultzatzea.
  - 4. arlo estrategikoa: parke naturalak, hondakinak, Mirandaolako parkeko garbitasuna, Erreka Egunarekin jarraitzea, ingurugiro-heziketarako borda bat berreskuratzea, landa garapena, ibaiaren egoera (honetaz eztabaida sakona egon da).
  - 5. arlo estrategikoa: Arau Subsidiario berrietan iraunkortasun irizpideak erabiltzea, mugikortasun iraunkorra, herriaren barruan berdegune gehiago garatzea, garraio publikoa (honen inguruan eskualdean estudio bat egiten ari dela jakinarazi da), auzoetako irisgarritasuna, auzoak berreskuratzea, hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko erreztasunak.
  - 6. arlo estrategikoa: Industrialdeetako hondakinak, hondakinen hautazko banaketa, hondakin gutxiago egiteko sensibilizazioa, industrietan edateko egokia ez den ura erabiltzea, eguzki-panelak erabiltzeko informazioa, ur edangarriaren sareak hobetzea.
- 1. línea estratégica: difundir los valores turísticos de Legazpi y de la comarca, adecuar los horarios escolares a las necesidades de las familias, mantener contacto con las empresas del pueblo, impulsar acciones para promover el comercio, diversificación económica, promover el consumo sostenible entre la población.
  - 2. línea estratégica: terapia familiar, programa de "respiro" a familiares que cuidan de personas mayores, integración de los inmigrantes, criterios para el servicio de ayuda a domicilio.
  - 3. línea estratégica: instalaciones deportivas, organizar actividades para la juventud las noches de los fines de semana (se debate), educar en valores, impulsar el euskara.
  - 4. línea estratégica: parques naturales, residuos, limpieza del parque Mirandaola, seguir con el día del río, recuperar una borda con objetivo de educación ambiental, desarrollo rural, situación del río (en este punto ha habido un profundo debate).
  - 5. línea estratégica: usar criterios de sostenibilidad en las nuevas Normas subsidiarias, movilidad más sostenible, desarrollar más zonas verdes dentro del pueblo, transporte público (en este punto se comenta que se está haciendo un estudio a nivel comarcal), accesibilidad a los barrios, recuperar los barrios, facilidades para alquilar viviendas que estén vacías.
  - 6. línea estratégica: residuos industriales, reparto selectivo de residuos, sensibilización para producir menos residuos, utilización de agua no apta para el consumo en las industrias, información sobre la utilización de paneles solares, mejorar las redes de abastecimiento de agua potable.

**TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN  
AKTA**

**ACTA  
FORO AGENDA LOCAL 21**

- 7. arlo estrategikoa: Legazpiko airearen kalitatea ezagutzea, lantegien kutsadura, (gai hauetaz eztabaidatu dute bertaratuakoe), kotxe eta motorren zarata.
- 8. arlo estrategikoa: herritarren partaidetza, garrantzitsuak diren arloetan udal-ordenantzak argitaratzea.

Ekarpen hauek kontutan hartuta, egokituko da plana.

**3.- Eskariak eta galderak.**

Ez da izan ez eskaerarik, ez galderarik.

- 7. línea estratégica: conocer la calidad del aire de Legazpi, contaminación de las empresas (se comenta este tema entre los asistentes), ruido de coches y motos.
- 8. línea estratégica: participación ciudadana, publicar ordenanzas municipales con respecto a temas importantes.

El plan se adecuará teniendo en cuenta todas estas aportaciones.

**3.-Ruegos y preguntas.**

No ha habido ni ruegos ni preguntas.